

Bideo-kamerak ikusmiran

Hemendik aurrera, bideo-kamera berria erosi baino lehen, merkatuko sistema berriei erreparatu beharko diezu, gero eta alde handiagoa baitago batetik bestera Hitachi izeneko enpresak multimediatu CD-tan baliagarri izango den bideo-kamera iraultzailea jadanik kalean jarri du, gainerako enpresen haserrerako, noski. MPEG izeneko sistema da enpresen arteko borroka berria piztu duena. Hitachi MPEG-k eskatzen duen miniaturizazioa egitea lortu du: sistema berriaren 300.000 osagarriak 600 miliwatt inguru soilik kontsumituko dituen txip txikian integratu ditu. Eskutik eskura erabiltzeko izango da, beraz, bideo-kamera berri eta txikia.

Garai bateko bideo-kamerak jadanik baztertu ditugun bezala, gaur egungoak ere zahartzen hasiak dira. Hitachi ekoiztutako MPEG izeneko kamera omen da belaunaldi berriko lehena.



Orain arteko su-etena apurto du Hitachi; izan ere, DVC izeneko sistema erabiltzekotan ziren enpresa nagusiak, baina hemendik aurrera, japoniarrek irekitako bidetik jo beharko dute gainerrako guztiak ere.

Disko gogor berriak

BM etxeak informatikaren alorrean hazibetea mila milioi bit biltzeko muga gainditu du. Big Blue izeneko disko gogor berriek kreditu-txartelaren tamaina dute, baina makinaz idatzitako 62.500 orrialdeko informazioa bil dezakete. Marka hori lortzeko injineruek "magneto-erresistentziako" prozedura garatu dute. Eremu magnetikoan dauden metalek dituzten erresistentzi aldaketak dira sistema berri horren oinarria.

Eguzkiaz baliatu... eta ibili munduan

Eguzkiaren energia baino ez du beharke zerua zeharkatzeko. Ixila, praktikoa eta erabat garbia; horixe diote, behintzat, Icaré 2 izenaz bataiatu duten hegazkina egin duten ikertzaileek. Datorren urteko uztailean egingo du bere estraineko hegaldia Icaré 2 he-



Zeruak zeharkatzeari ekin baino lehen, azken ukituak baino ez zaizkio falta Icaré 2 hegazkinari. Eguzkiaren energia soilaz elikatuko da datorren urteko uztailean lanean hasiko denean.

guzkinak, Alemaniako Stuttgart hirian azken ukituak eman ondoren. 25 metroko zabalera du; plastikoz eta karbonozko zuntzez egina dago eta horrek nahikoa arina izatea ahalbidetu du: 165 kilo baino ez. Eguzki-panelek hegazkinak behar duen energiaren % 93 eskuratuko dute eta 2,4 metroko helizea du. Horrekin guztiarekin, planeagailu arruntek egiten duten ibilbide bera egin ahal izango du Icaré 2 izenekoak. Hala uste dute proiektu honetan lanean ari diren ikertzaileek eta zuzen daudela iragartzearen uztailean Icaré 2-k nazioarteko hegazkin-lasterketan parte hartuko du.

Berotzeko ehunak

Hotz dagoenean isolatzen duten ehunak erabiltzea baino hobea da berotzen dutenak erabiltzea. Estatu Batuetan Gateway Technologies en-

presak kanpoko energiaturrik gabe pertsona berotzen duten eskularru, txapel eta botak saltzen ditu. Batez ere ne-guan oso baliagarri diren produktu hauen oinarrian "fasez aldatzen diren materialak" daude. Beste era batera esanda, konposatu kimiko jakin batzuk erabiltzen dira: polietilenglikola, etab. Temperatura handia dagoenean inguruneke beroa biltzen dute likidotzen diren bitartean eta gero, hotz egiten duenean, solidotu egiten dira, gramo bakoitzeko 35-45 kaloria emanaz. Ehunean likidoa barrea ez dadin, konposatu kimiko horiek bola-formako kapsula txikitan egoten dira ehunaren zuntzen artean. Egia da aldika ehuna berotan eduki behar dela (hau da, bateriak bezalaxe kargatu egin behar da), baina izotza denean ematen duen goxotasuna ez da badaezpadakoa.

